

# murarte

CULTURA OCIO COMUNICACION

## Arabak koplak erritmoan dantzatzeko du

Arabako Bertsozale Elkarteak 'Altxa koplak hori!' egitasmoa antolatu du; gaur hasiko da eta guztira bost saio egingo dira

» Eunate F. Domínguez

**GASTEIZ** – Koplak Arabara itzuli da, Arabako Bertsozale elkartearen eskutik. Izan ere, elkarte honek abiatutako *Altxa koplak hori!* ekimenak emanaldia eskainiko du gaur Luiaondoko frontoian, 20:00etan. Proiektu honen bigarren saioa hilaren 15ean izango da, Aramaloko Kultur etxeko parkean, ordutegi berean, 20:00etan, zehazki. Bestalde, irailerako ere beste hiru saio antolatu dira.

*Altxa koplak hori!* egitasmoaren hirugarren edizioa da aurtengoa. Aurreko biak banakako Txapelketa urteetan egin ziren, udaberri-uda aldera. "Banakako Txapelketa egiten zen urteetan ikusten genuen udaberri-uda aldera saio informala goak behar genituela bultzatu, hau da, neguan zehar Txapelketan oholtzako saio serioagoak izan genituela eta udaberri-uda aldera saio ludikoagoak behar zirela. Eta saio musikatu batzuk egitea bururatu zitzaigun eta gainera pixka bat zehaztuago izanda Koplak neurrian izatea", azaldu du DIARIO DE NOTICIAS DE ÁLAVA egunkarian Uxue Diaz de Cerio, elkarte honen sustatzaileak. Eta horrela sortu zen, hain zuzen ere, koplak Arabara elkarteko eta bertsozale guztiak eta bertaratuak hartuz gozatzeko ideia. Gainera, egitasmo hori musikariak lagundutako saio multidiziplinarra da, "beralek jotako melodian sartu behar dira bertsoariak bertso arriketa batzuetan, elkarlanean", dio Uxue Diaz de Cerio eta erantsi egiten du: "Doinuak, koplak doinuak dira, hau da, esan genezake edo gaizki esanda bertso erdi bat dena. Izan ere koplak bertso laburrak izanda ere gorputz komunikatibo oso bat dira eta asko adieraz dezakete. Euskal Herriko koplak doinu tradizional eta egungoetatik aparte, bertso koplak enkajatzaren duten bestelako doinuren bat ere erabiltzen da Habanatik datorren doinuren bat esaterako". Hala, eta ildo beretik, 2017an hasitako bideari elkanda, 2021ean *Altxa Koplak Hori!* bertso musikatuaren egitasmoa jarri du martxan Arabako Bertsozale Elkarteak, bertsozaleei koplak doinuak gozatzeko aukera eskainiz. Lagun arteko formatuan, kalean, musikaz lagunduta eta koplak oinarri hartuta bost saio antolatu dira. Arabako 20 bertsoariak, bost gai jartzailek eta lau musikariek parte hartuko dute, adin, herri eta belaunaldi ezberdinetakoek. Kalean



Altxa Koplak Hori! -ren aurreko edizio bateko arribo-irudia, Arabako Bertsozale elkarteak antolatua. Argazkia: Utzita

edo plazan, taburetetan edota aulkitan eserita, doinu batzuk musikaz lagunduta eta entzulegandik hurbil. Luiaondan, emango zaio hasiera egitasmoari gaur eta hilaren 15ean izango da bere bigarren saioa, Aramalok. Bestalde, iraillean beste hiru saio ere antolatu dira, nahiz eta oraindik ez diren eman ekitaldi horien ordutegiari eta lekuari buruzko datuak. "Ordu eta erdi pasatzeko saioak, alde batetik musikariaren doinu ederrak eta bestetik koplak koplak, umoretik eta jolasetik eskainiko ditugu entzuleen gozamenerako", esan du. Ekitaldi honen helburuetako bat, gainera, gozatzeko giro egokidatzea da: "Uda iluntzetako giroa, trantsizioa eta honetan, plaza eta herria alaitzeko giroa".

**KULTURARI BULTZADA EGINEZ 2020ko** martxoan hasitako koronabirusaren pandemiak bete-betean jo zuen kuit-

turaren sektorea. Normaltasunera itzultzea ez da erraza izaten ari, baina gero eta gehiago egiten da sektore hori indartzeko. Izan ere, horrelako ekimenek gogorarazten dute herritarrek ongi pasatzeko beharra eta kultura sortzen jarraitzeko beharra dagoela. Elkarte horretatik Uxue Diaz de Cerio dioenez, ez da erraza izaten horrelako ekitaldiak sortzen jarraitzea. Hala ere, eta ezartzen diren covidaren aurkako segurtasun-neurriak kontuan hartuta, ziurtatu du herritarrek kultura-ekitaldiekin berriro konektatzen ari direla: "Pandemiak dena zaildu du, saio gutxiago, publiko gutxiago... Baina poliki-poliki jendea animatzen ari da kultur ekintzetan disfrutatzea, behar-beharrezkoa baitugu arimak kulturaz bostitzea. Beraz, kalean diren saioak izanda eta beharrezko diren segurtasun distantziak luki-tutako jarrikuak egonda, nik espero

**Lehen hitzordua gaur izango da, arratsaldeko 20:00etan. Guztira, 45 lagun inguru hartuko dute parte saio guztietan**

**Lagun arteko formatuan, kalean, musikaz lagunduta eta koplak oinarri hartuta, bost saio antolatu dira guztira irailera arte**

dut plazak betetzea", dio. Lehen hitzordua gaur izango da, arratsaldeko 20:00etan, eta Paula Amilburu, Manu Bendala, Aitor Najera eta Felipe Zelaia bertsoariak hartuko dute parte. Uxue Diaz de Cerio gai jartzaile izango da eta musikariak Unai Mendibil eta Nahia Elizaguirre izango dira. Irati Anda, Manex Agirre, Xabi Antia eta Orlando Arreitunandia izango dira bigarren saio horretan. Eii Plazaola gai jartzaile izango da eta Unai Mendibil eta Mikel Golkurja musikariak.

Arabako Bertsozale Elkarteak antolatu du jardura hori, eta Eusko Jaurlaritzaren eta Alarako Udalaren laguntza dauka. Horrez gain, ekitaldia parte-hartzaileentzat segurua izan dadin beharrezkoak diren osasun-neurriak ezarri dira; besteak beste, publikoaren eta tokiko-purmu mugatuaren arteko distantzia, elkarretik gogorazti dutenez. ●